

## XEDAPEN OROKORRAK

### OSASUN SAILA

## 5877

*HUTS-ZUZENKETA, honako dekretu honena: 252/2017 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzko Dekretua aldatzen duena.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan zehazten duenez, testuinguruak argi eta garbi aditzera ematen dituen eta dokumentuen esanahia aldatu ez, baina balizko nahasketak saihesteko aldatzea komeni diren hutsak edo omisioak Jaur-laritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzendu beharko ditu, testua argitaratzeko agindua eman duen erakundeak eskatuta.

Modu horretako hutsak atzeman dira Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubidea arautzen duen Dekretua aldatzen duen azaroaren 21eko 252/2017 Dekretuaren euskarazko testuan (2017ko azaroaren 27ko EHAA, 226. zk.). Hona hemen zuzenketak:

2017/5718 (2/2) orrialdean, artikuluko bakarrean, hau dio:

«a) Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan ohiko bizilekua izatea eta bertan errol-datuta egotea, hiru hilabetez gutxienez, etenik gabe, osasun-laguntza aitortzeko eskaera egiteko unean. Urtebete horrek eskaera egin aurre-aurrekoa izan behar du.»

Baina hau esan behar du:

«a) Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan ohiko bizilekua izatea eta bertan errol-datuta egotea, hiru hilabetez gutxienez, etenik gabe, osasun-laguntza aitortzeko eskaera egiteko unean. Epe horrek eskaera egin aurre-aurrekoa izan behar du.»